



Alaba ezkongabea



ZEIN ANIMALIAK
GALDUKO LUKE
LASTERKETA
BAT: BAREAK,
BARRASKILOAK ALA
KARRAMARROAK?




Orain dela asko, Orreagako Bea-
mondar erregeak zazpi alaba omen
zituen. Haietatik sei ezkontuta zeuden, baina artean
zazpigarrena gelditzen zitzaion ezkontu gabe. Nafa-
rroa osoan printze ezkongaberik ezin aurkituta ibili
ostean, honako berri hau zabaldu zuen herrian:

“Tarrapatatan-tarrapatatan! Gure alabarekin ezkontu
nahi duena datorrela gaztelura animalia batekin.
Animalia guztien artean lasterketa bat egingo dugu,
eta galtzen duena izango da irabazlea. Tarrapatatan-
tarrapatatan!”

Hiru mutil aurkeztu ziren lehiara.

—Gazteok, hemen nauzue agindutakoa betetzeko prest
—esan zien erregeak—. Ekarri dituzuen animaliak
irteeran jarri, eta helmugara azkena iristen
dena izango da garaile, ongi? Bat, bi, hiru, has dadila
lasterketa!

Gazteetako batek barraskiloa eraman zuen. Nekez, baina
azkenean iritsi zen helmugara... Bigarrenak bare lodi-lodi
bat ekarri zuen, barraskiloa baino are motelagoa, baina,
tirriki-tarraka, tirriki-tarraka, heldu zen helmugara hura ere.
Hirugarrenak, aldiz, herritar guztien harridurarako, karra-
marro gorri eta harro bat ekarri zuen.



—Burutik eginda dago! —zioen jendeak barrez eta burlaz—. Karramarroa bizkor-bizkorra da eta!

Mutilak, ordea, ez zien kasurik egin, bai baitzekien karramarroa ez zela sekula helmugara iritsiko. Zergatik? Bada, karramarroak atze-atzeka ibiltzen direlako.

Halaxe izan zen: karramarroak, aurreraka egin beharrean, atzerantz eta atzerantz egin zuen, eta ez zen inoiz helmugara iritsi. Herritar guztiak aho zabalik gelditu ziren:

—Karramarroak irabazi du! Karramarroak irabazi du!

Erregeak, agindu zuen bezala, hirugarren gazteari eman zion alaba gazteenarekin ezkontzeko ohorea, hiruretan buruargiena izateagatik.

IPUINA GUSTATU AL ZAIZU?

☐ BAI


☐ EZ

☐ ERDIZKA



Misterioa argitzen

- 1 Zein animalia eraman zituzten gazteek gaztelura? Aukeratu, eta idatzi.



- 2 Zenbat denbora behar izan zuten helmugara heltzeko? Adierazi, X eginez.

Barraskiloak?

☐ Ez zen sekula helmugara heldu.

☐ Bareak baino gutxiago.

Bareak?

☐ Barraskiloak baino gehiago.

☐ Barraskiloak baino gutxiago.

Karramarroak?

☐ Ez zen sekula helmugara heldu.

☐ Bareak baino gehiago.

- 3 Zein izan zen gazterik bizkorrena? Zergatik? Adierazi, X eginez.



☐ Animalia geldoena eraman zuelako.

☐ Helmugara sekula iritsiko ez zen animalia eraman zuelako.

- 4 Erregeak honako berri hau zabalduko balu, zer hiru animalia eramango lituzkete gazteek? Idatzi.



ANIMALIEN LASTERKETA BAT
ANTOLATUKO DUT. NIRE ALABAREKIN
EZKONDU NAHI DUENAK LASTERKETA
IRABAZIKO DUEN ANIMALIA EKARRI
BEHARKO DU GAZTELURA.

- 5 Kasu horretan, nola amaituko litzateke ipuina? Binaka jarrita, pentsatu, eta idatzi.

Hurrengo egunean, hiru gazte aurkeztu
ziren. Batak...
